

Aspanogiren aldeko jaialdia Basteron

Minbizia duten haurren aldeko jaialdia aurkeztu dute Triana elkarteak. Abenduaren 9an izango da Basteron, herriko kultur eragileen parte-hartze zabalarekin / 10



**Organikoaren eta
errefusaren bilketa
datuak nabarmen
hobetu dituzte
Urnietan** / 11



**Sagardo lehiaketa
Urnietan, DIVA
Pentsuak eta
Oianumek
antolatuta** / 16



**"Indarkeria matxistaren
biktimak artatu
erreparazioaren ikuspegitik"
jardunaldiak Andoainen**

Andoingo Udalaren Berdintasun sailak adituen iritziak jasoko ditu alor horretan berritzailea den ikuspegi sakonduz. / 2-3

ANITA MARAVILLAS TEATRO & PORTAL 71



Familia ikuskizuna
JON BRAUN

Azaroak 18, igandea
17:30
Sarobe AEG
3 €

Sarrerak online
eros daitezke






Jardunaldiak, lehen hitzorduak



Ana Carrere alkateak emango dio hasiera egun osoko jardunaldiari.

09:30-10:00 | Irekiera ekitaldia Jardunaldian izena emateko aukera izango da goizeko 09:15etan, Basteron bertan. Ekitaldiari hasiera emateko Ana Carrere Andoaingo alkateak eta Eukene de Miguel Eudeleko teknikariak adierazpen bana egingo dute.



Bertha Gaztelumendi "Volar" filmaren zuzendaria.

10:00-10:30 | Ikus-entzunezkoa Bertha Gaztelumendik zuzendutako pelikula, indarkeria jasan duten bederatzi emakumeren testigantzak jasotzen ditu. Filmaren zati batzuk eskainiko dituzte, filmeko zenbait protagonistek aurkeztuta.



Lorena Garrido legelari feminista.

10:30-12:00 | Solasaldia "Eskuhartzea eta justizia erreparazioaren bidez. Biak posible dira?", galderari erantzuna ematen ahaleginduko dira Elena Laporta eta Lorena Garrido legelari feministak.



Indarkeria matxistaren biktimen inguruko "Volar" filmaren kartela, jarduera horietan murgilduta daudenentzat aski ezaguna.

Justizia erreparazioaren ikuspegitik

Gizakien arteko bestelako egoera gatazkatsuetan garatu den bezala, erreparazioarena indarkeria matxistaren esparrura eraman nahi da. Gabezia handia dago alor horretan, eta Andoaingo Udalak puntako jardunaldia antolatu du hurrengo azaroaren 22rako

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Justiziak zigorrak ezartzen ditu biolentzia eragin duenarentzat, eta babes neurriak ipini biolentzia pairatu duenarentzat. Azken horietan, erreparazioari begira hutsune handiak daude. Haste-

ko, legeek bere baitan ez dute horrelakorik biltzen. Erreparazioarekiko hutsunea erabatekoa da estatu mailako 2004ko lege organikoan, eta baita EAEko 2005eko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legean ere.

Nazioartean, Istanbulleko akordioa gabezia hori gainditzera dator. Genero indarkeria sufritutako biktimei erreparazioa zor zaiela aipatzen baita. Praktikara nola eraman aztergai izango da Andoainen.

"Andoaingo jardunaldia aitzindaria da"

ELENA LAPORTA MADRIDEKO CARLOS III UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA
Emakumeen giza eskubideen alorrean legelari eta aholkulari lanetan dabil nazioartean. Azaroaren 22ko jardunaldian parte hartuko duen adituetakoa da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Kolonbian aritu zen lanean Instituto Iberoamericano de Educacion en Derechos Humanos y Democracia de la Organizacion de Estados Iberoamericanos para la Educacion, la Ciencia y la Cultura erakundean. Horrez gain, ikerlari ere aritzen da.

Azaroaren 22ko jardunaldia, "Indarkeria matxistaren biktimak artatu erreparazioaren ikuspegitik" izenburukoa, berritzailatzat aurkeztu dute. Legelari zaren aldetik, zer nolako garrantzia ematen diozu jardunaldiari?

Ezinbestekoa da horrelako jardunaldiak antolatzea, erabateko erreparazioan huts egiten baita. Erakundeetan, gainera, ez da ohikoa erreparazioari arreta jartzea. Nazioartean garapen normatiboa ibilbidea egiten ari bada ere, gaur-gaurkoz kontzeptuari eta inplikazio praktikoei buruzko ezezagutza handia da. Andoaingo ekimena aitzindaria da, alor askotatik begiratuta. Eta genero indarkeriaren aurka giltzarri izan daiteke. Zeren eta epe ertain eta luzera begira, erreparazioa emakumeenganako diskriminazioarekin amaitzeko ezinbestekoa izan daiteke. Emakumeek pairatzen dituzten giza eskubideen urraketak errortik moztuta soilik egin genezake



Elena Laporta irakaslea, legelaria, ikerlaria eta feminista da.

"GAUR GAURKOZ ERAKUNDEETAN EZ DA OHIKOA ERREPARAZIOARI ARRETA JARTZEA"


gizarte parekidea lortzeko bidea. Eta horretarako, kasu bakoitzean parte hartzen duten erakundeen konpromisoa eta koordinazioa beharrezkoa da.

"Justizia erreparazio bezala" izenburupean hitzaldia eskainiko duzu. Aurrerapentxo egingo al zeniguke?

Erreparazio integrala eta eraldatzailea abiapuntu bezala hartuko dut, indarrean dauden tokian tokiko eta nazioarteko araudiak aipatuz. Bientzia pairatu duen emakumeari ez zaio ezbeharrak gertatu aurreko egoera soilik eskaini behar. Egiturazko diskriminazioa dagoela aintzat hartu behar da, beraz, errealitate hori oso kontutan hartu behar da erreparazioa aplikatzen has-teko garaian. Bizirik irten diren pertsonen erreparazioari arreta ipini behar diogu. Euren beharrei, interesei eta lehentasunei egokitu behar dugu, euren erabakietan parte-hartze eta autonomia maila handiagoa lor dezaten. Uneoro entzun behar ditugu. Erreparazioa ez da kalte-ordainera mugatu behar, horixe baita tradizionalki erreparaziozat ulertzen dena. Erreparazioarekin errehabilitazioa, asebetetzea eta berriro ez errepikatzeko bermeak eskaini behar dira.

Erreparazioak bereziki emakumea ahaldundu behar du, eta ez sufrimendu gehiago eragin. Horretarako erakundeetan parte-hartze bateratua eta koordinatua beharrezkoa da, erakunde publiko edota judizialen aldetik.

Jardunaldiak, azken hitzorduak



Graciela Atencio, Feminicidio.net ekimeneko partaidea.

12:30-14:00 | Solasaldia "Esperientzia motak erreparazio eremu desberdinetan. Kalte-ordainketa neurriak" izenburupean Graciela Atencio Feminicidio.net ekimeneko kidea edota Rafa Sainz Arartekoko ordezkaria hizlari arituko dira.



Bientzia matxista pairatu duten hainbat kasu agertzen da "Volar" filmean.

16:00-18:00 | Gogoeta "Erreparazio sinbolikoa: Bizirik irten direnen testigantza eta ahotsa" izenburupean Udaleko Gizarte Zerbitzuetako ordezkariak erreparazioarako neurri indibidualez hitzketan arituko dira.



Virginia Imaz, Oihulari Klown taldeko kidea.

18:00-18:30 | Klownklusioak Jardunaldiari amaiera koloretsua eta alaia emate aldera, Emakunde saria jasotakoa den Virginia Imaz pailazoak jardunaldi osoan entzundakotik ondorioak aterako ditu. Azken saio horrekin amaiera emango diete jardunaldiei.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA**



ZABALIK

JON ANDER UBEDA KAZETARIA

Aldaketa lasaia izango dela dirudi

Errefusa bereizteko edukiontzi grisa herrigune osora zabalduko dute Andoainen, proba modura hiru auzunetan ezarri eta gero. Helburua argia da: Birziklapen tasa igotzea –eta, bide batez, baita Tolosaldeko herrien sailkapeneko zulotik ateratzea ere–. Andoaingoak emaitza kaskarrenak dira, alde handiarekin. Dena esatera, hondakinak bereizteko metodo berrietan berandu samar abiatu zelako. Ez da denbora asko organikoa bereizteko txipa duen edukiontzi marroia ipini zutela. 2018ko azarotik aurrera, errefusa bereizteko edukiontzi grisetan prozedura berdina erabiliko dute. Sistema berria martxan jartzeko gutxi falta denean, alderdi politiko guztiak ez datoz bat. Herritarren artean ere iritzi ugari aurki daitezke (sare sozialetan, maiz gertatu ohi denez, zatarrenak nabarmentzen dira). Aiurri astekariak, kalera atera, eta inkesta egin zuen egunerokoan edukiontzi grisa erabiltzera ohitu diren Sorabillako, Olagaingo eta Alejandro Calongeko hainbat bizilagunen artean (aurreko astekaria, 583. zenbakiduna).

Bertako inkestak irakurrita, hauexek dira neronek ateratzen ditudan ondorio nagusiak. Kateatuta datoz, ondorio bakoitzak bestean eragiten duela iruditzen baitzait:

- Txipa duen edukiontzi sistemak hiru auzuneetan bizi direnen onespina dauka. Inkestetan ez da aurkakotasun sutsurik ageri. Eta inkestaz haratago, sistemaren aurkako mugimendu antolatutik ez da sortu.
- Are gehiago, elkarriketatuek edukiontzia ixtea beharrezkotzat hartu dute. Bereziki, periferian. Inkestan adierazten den bezala, bat baino gehiago da kanpotik jendea Andoaingo auzo periferikoetara zaborra botatzera datorrela adierazten duena. Elkarriketatuen ustean, edukiontzia ixtea ezezagunen praktika txarrak uxatzeko eraginkorra izango da.
- Eta horri lotuta, edukiontzia ixtean kanpokoen *bisitaldiak* murriztuko direnez, Andoainek herri bezala eskaintzen dituen birziklapen datu kaskarrak hobetu ahal izango ditu. Izan ere, inkesta egindakoei bihotzean halako mina nabari zaie euren herriko datuak Mankomunitateko baxuenak direla gogorarazten zaienean. Erantzunen artean honakoak aurkitu ditugulako: “Auzoan birziklatzen dela esango nuke”, “Gure auzoan ondo birziklatzen dela uste dut”, “Ez dut uste hori horrela denik”...

Datuak, alabaina, hor daude. %44,27 birziklaketa tasa Andoainen, 2018ko abuztuan. Helburu gisa 2016rako ipinitako %60tik urrun.

KIOSKOA

Sagardoa eta emakumea erakusketa Sagardoetxean

KRONIKA # ASTIGARRAGA

Sagardoa eta emakumea erakusketa zabalik dago Sagardoetxean. Azaroaren 25a bitarte egongo da zabalik eta erakusketaren antolaketa elkarlanean aritu dira Sagardoaren Lurraldea, Sagardoetxea eta Zelaia. Irudiek eta azalpenek osatzen dute erakusketa.

Erakusketak emakumezkoek sagardogintzan izan duten rola eta bere transmisio eta kontserbazioan egin duten ekarpena ezagutzera ematea du helburu.

Erakusketaren ordutegia: asteartetik larunbatera, 11:00etatik 13:30etara eta 16:00etatik 19:30etara. Igande eta jai egunetan 11:00etatik 13:30etara.

Astelehenetan itxita egongo da.



POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da.
Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzailerak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Golea Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ALJATUAK:**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

ZIURTAGIA:

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

EUSKARALDIAN PARTE HARTU

izenematea.euskaraldia.eus

Zein rol hartuko duzu Euskaraldian?

Ahobizi

Belarriprest

Izen-ematea, URNIETA: Kirolegia, kultur etxea, liburutegia, Sarobe eta ikastetxeak.

Izen-ematea, ANDOAIN: Udaleko euskara saileko webgunea, Ataria, kiroldegia, Urrats, Li denda.

Gipuzkoako Foru Aldundia

PROTAGONISTA

"Andoain hobetzen jarraitzea, horixe da gure helburu nagusia"

ANDONI ALVAREZ LETE ANDOAINGO EH BILDUKO ALKATEGAIA

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
EH Bilduk aste honetan
alkatetzarako proposatu zaitu.
Zeintzuk izan dira hautagaitzari
baiezkoa emateko arrazoiak?

Maila pertsonalean hausnarketa prozesua izan da, ez da egun batetik bestera alkategai izateko erabakia hartzen. Aldi berean, guztiok ere Andoainen alde zer egiterik badugula iruditzen zait. Talde-lanean aritzera ohituta nago, eta nire ekarpena alde horretatik doa. Azken urteotan ideologia ezberdineko pertsonen artean eraiki diren zubiak indartu eta bide horretan urrats sendoagoak eman ditzakegula uste dut. Udalgintzatik kanpoko beste esparruetan pilatu dudan esperientzia etorkizuneko Andoain hobe baten alde baliatu nahi dut. **Ana Carreren lekukoa hartuko duzu. Zein da bere aroaz egin dezakezun hausnarketa?** Balorazioa oso ona da, bi norabidetan. Urte zailak izan zituzten, egoera ekonomikoa



Andoni Alvarez, Andoaingo EH Bilduko hautagaia. EH BILDU

txarra zelako benetan. Arazo handi hori bideratzea eta premiazko beharrak konponbidean jartzea lortu dute. Era berean, zortzi urte hauetan gizarte mailako alor askotan sinergiak landu dira.

Udalak, zorionez, zerikusi zuzena izan du. **Ezustekoa izan da askorentzat zure hautagaitza. Era berean, pertsona ezaguna zara Andoainen. Zer nolako harrera nabaritu duzu lehen egunetan?**

Astelehenean albistea zabaldu zenetik harrituta geratu naiz jaso dudan mezu piloarekin, eta batez ere oso pozik nago nire hautagaitzak ideologia ezberdineko pertsonen artean oso harrera ona izan duelako.

Eskerrak eman nahi dizkiet ere EH Bilduren barne prozesuan nigan konfiantza osoa ipini duten kideei ere. Haien eskutik bide oparoa egiten hasteko gogoz nago. **Aurkariak zure esperientzia falta leporatu diezazuke. Zer erantzun zenuke?**

Gizarte sarea ehuntzen ari da Andoainen, ekimen ugari eta parte-hartzaileekin. Jendaurreko ibilbidea hortxe egin dut, eta aurrerantzean nire eskarmentua herritarren eta herri ekimen guztien zerbitzura ipini nahi dut.

Ez naiz, bistan da, alderdi politikoen mundutik natorren norbait. EH Bilduk, ordea, urteak daramatza Andoainen ardura postuetan erantzukizun handiena hartzen. Era berean, EH Bilduren barne prozesuan talde sendoa topatu dut, tartean bi alkate eta zinegotzi eta zinegotzi ohi ugari ere. Oso lasai nago, oso babestuta.

2019rako zein da zure aurreikuspena?

Udal gobernutik Andoain hobetzen jarraitzea, horixe da gure helburu nagusia.

HAU ERE BADUGU!

SD Euskaldunaren oharra



"Azken aste hauetan, modu batera edo bestera, guregana galdezka hurbildu zarete ea Zumea plazan irekitzera doazen joko aretoarekin harremanik ba ote dugun, bai gure izena eta baita kolore urdina erabiltzen dituelako. Ohar honen bidez SD Euskalduna elkarteak argi utzi nahi du ez duela zerikusirik negozio berri honen irekierarekin". Azken asteotan bolo-bolo dabil Andoainen egokitzen ari diren joko areto berria. Euskadiko hainbat kolektibo horrelako ekimenen aurka agertu dira, eta erakundeek apustuek sortzen dituzten arazoei aurre egiteko egitasmoak iragarri dituzte. Andoainen, gainera, apustu etxeak herrian hain maitatua den futbol taldearen izena eta irudia erabili ditu. Tamalgarria.

KONTZERTUA "GALERAK DISKAREN AURRERAPENA"
azaroak 10, LARUNBATA, 22:00 Sulegi SARRERAK*

SOLASALDIA "Antton eta Julen Telleria eta Aitziber Garremendia"
azaroak 14, ASTEZKENA, 19:30 Sulegi DOAN

PELIKULA "OREINA"
azaroak 17, LARUNBATA, 19:00 Sulegi SARRERAK*

BISITA GIDATUA "HARRIA HITZ"
azaroak 11, IGANDEA, 10:00 Frontalitik DOAN

ANTZERKIA "Euskalaldireko 4 altxakia: Nahia, Xabat, Eli eta Patsi"
azaroak 16, OSTIRALA, 19:30 Sulegi SARRERAK*

KONTZERTUA "EME TALDEA"
azaroak 18, IGANDEA, 19:00 Sulegi SARRERAK*

PELIKULA "BLACK IS BELTZA" FERNIN MUGURUTAREN
aurkispenean, azaroak 19, IGANDEA, 19:00 Sulegi SARRERAK*

KANTU-BERTSO-BAZKARI-JIRA "Agin Laburu eta Aitor Sanriegi bertsolariekin"
azaroak 17, LARUNBATA, 12:00 Mikel Laboa plazatik BAZKARI-TXARTELA*

NOAUA/KO KULTURALDIA 2018

USURBIL AZAROA

*SARRERAK: Aldez aurretik Bordaixon, Artzabalen, Lizardin eta Noauako egoitzan. Noauako bazkideek prezio berezian Noauako egoitzan aldez aurretik. *BAZKARI-TXARTELA: Patri jate txean salgai soilik.

Herrien jaia, etorkizunari begira

Zumea plazan Hogar Extremeño eta Triana Andoaingo taldeek "Herrien jaia" ospakizuna antolatu zuten. Dagoenetik abiatu eta etorkizunari begira jarri dira, mundu zabaleko kultur aniztasunari tartea eman nahian

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Herrien jaia ospatzen ari zarete, elkarlanean

Jose Manuel Rey. Urtero antolatzen den jaialdia da eta normalean Andoaingo taldeok parte hartzen dugu. Lastima talde gehiago ez egotea, eta ohikoan Triana eta Hogar Extremeño taldeen artean antolatzen dugu.

Zein talde gehiagori buruz ari zarete?

Luis Gil. Andoaingen kultur ordezkari zabala dago, munduko jatorri ezberdinekoa. Aurtengorako ez digu denborarik eman, baina hurrengoetarako nazioarteko kultura horiei tartea eskaini nahiko genieke.

Ekainean Udalak nazioarteko jakiei buruz antolatu zuenaren antzekoa?

Jose Manuel Rey. Bide horretatik doa baina zoritxarrez nazioarteko ordezkari horiek ez daude elkarte bezala antolatuta. Gipuzkoako ordezkariak baldin badira, adibidez, ez genuke arazorik ikusiko.

Luis Gil. Datorren urteko ospakizunean dibertsitate hori gurera ekarri nahiko genuke, Andoaingo Herrien jaira. Ea kultur ordezkari zabala biltzea lortzen dugun. Bi elkarteon aldetik adostuta daukagu etorkizunerako erronka hori. Ea lortzen dugun.

Zer da zuretzat, zehazki, Triana?

Luis Gil. Hainbeste denbora da Andaluziatik hona etorri ginela..., gure sustraletara lotuta jarraitzeko modua da. Eta, bide batez, tarteka gure kulturaren berri ematea nahiko genuke. Errenteria, Arrasate, Irun, Lasarte-Oria... Euskadin zehar ospakizun askotan parte hartzen ari gara.

Eta zuretzat Hogar Extremeño?

Jose Manuel Rey. Nondik gatozen ez ahazteko bidea da. Arbasoak, gurasoak,... haien ondorengoak gara. Dagoeneko hirugarren belaunaldia da Andoaingen bizi dena, haietako batzuk ez dute Extremadura ezagutzen. Euskaraz hazi eta hezi da alaba, baina elkar-



Jose Manuel Rey eta Luis Gil Zumea plazako ospakizunean. AIURRI

"DATORREN URTEAN NAZIOARTZEKO DIBERTSITATEARI TARTEA ESKAINI NAHIKO GENIOKE"

tearen bitartez sustraiak ez ahazteko modua lantzen ari gara. Dibertsitatearen garrantziaz ohartarazi nahi diegu. Kultura bakoitzaren gauzarik onena har dezala.

Zuetako askok "el pueblo" hortxe duzue eskura.

Jose Manuel Rey. Nire kasuan ez dut "pueblo"rik. Guk dagoeneko ez dugu ezer Extremaduran. Baina erroak hor daude, eta ez ditugu ahaztu nahi. Gure elkartearen jende askok herriarekin duen loturari eutsi dio, gogoko dute, eta egonaldiak amaituta berriro Andoaingera itzultzen dira.

Luis Gil. Emazteak esaldi bera errepikatzen du oporraldiari hasiera ematen diogunean. Baños de Montemayor herritik igarotzean "iritsi gara" esaten hasten da. Etxeko gazteenak urtero joaten dira. Eta aiton-amonak bizi zirenean, seme zaharrenak

4 urte zituela, paparrean txartela ipini eta bakarrik bidaltzen genuen Sevillara. Aiton-amonak jasotzen zuten hara iristean. Lotura horiei eutsi nahi diegu oraindik.

Etorkizunean, nazioarteko kulturei tokia eman nahi diezue, bien bitartean herriko kultur taldeak parte-hartze handia izaten ari dira.

Jose Manuel Rey. Talde guztien parte-hartzea eskatu ohi dugu, eta txistulariak, txaranga eta bestelako taldeak gure eskaeragatik daude hemen. Ez dadila gure jaia tonu bakarrekoa izan, kolore aniztasuna nabarmendu dadila.

Luis Gil. Urte batzuetan, egitaraua Trianaren eta Hogar Extremeñoaren eskaintzarekin bakarrik osatzen zen, eta pobre samar geratzen zen. Aukera berriak aztertzen gabe, eta zorte pixka batekin lortuko dugulakoan gaude.

Bakoitzak bestearen kulturatik zer azipimarratuko zenukete?

Jose Manuel Rey. Andaluziar herriak duen bizipoza nabarmenduko nuke.

Luis Gil. Extremadurako kultura aberatsa da, oso. Eta gastronomia primerakoa da.

Herrien jaia Zumea plazan



Hogar Extremeñoeko lantaldea, goizeko txandan. AIURRI

Auzolana Herrikide askoren lanari esker atera zen aurrera ospakizuna. Asko eta asko barraren atzean lanean, eta beste batzuk antolaketa lanean. Goizeko lehen taldean aritu zirenak pozarren agertu ziren kamara aurrean.



Trianako lantaldea, azoka ireki berritan ateratako argazkian. AIURRI

Egun osoko ospakizuna Goizez eta arratsaldeaz luzatu zen ospakizuna Zumea plazan. Lanik handiena oholtza prestatzen eman zuten. Beharginek orduak behar izan zituzten Zumea plazan jartzeko.



Trianako dantzariak, arratsaldeko saioan. AIURRI

Kultur Aniztasuna Triana, Olagain, Alberto Agirre abesbatza..., herriko eragile ezberdinek bat egin zuten "Herrien jaia" ospakizunean. Nazioarteko kulturei tartea zabaltzeko nahi diote etorkizunean.

Elkarbiziren deialdia Memoriaren egunean

Oroimenaren nazioarteko egunean, Elkarbizi taldeak 'indarkeriaren biktimak gogoratzeko' ekitaldia antolatu du Lopez de Lacalle parkean dagoen *Askatasunari* eskulturaren aurrean. 12:30etan hasita izango da, larunbat honetan

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Elkarbizik beste behin ere oroimenaren egunarekin bat egingo du, ekitaldia antolatuz. "Indarkeriaren biktimak gogoratzeko" diozue deialdian. Biktima guztiak, alde guztietakoak esan nahi baita.

Horrela da, ez dugu bereizketarik egiten. *Askatasunari* eskultura bera, biktima izan diren guztiei eskainita dago, bai Batallón Vasco Españolak hil zituenak eta baita ETAk hildakoak ere. Denak daude bertan, Andoaingoak diren guztiak. Omenaldia guztiei egiten diegu, askatasunaren alde erailak izan diren biktima guztiei.

Ekitaldiaren deialdia prentsara bidali duzue. Herritar guztiei zuzendurik al dago? Bestelako gonbidapen formalik egiten al diezue biktima edo Udal ordezkariak?

Ez dugu bereizketarik egiten, prentsa bidez herritar guztiei deialdiaren berri eman nahi diegu. Herritar guztiak gonbidatuta daude, nahi duenak azaltzeko aukera izan dezan.

Zuzenean ez diogu inori gonbidapen bereizirik egiten. Elkarbizin parte hartzen duten pertsonak deialdia bidaltzen diegu. Maila pertsonalean, Mari Paz Artolazabal urtero jakinaren gainean jartzen dut. Lehengoan kalean Ansa topatu nuen, iaz ekitaldian hurbildu zena, eta aurtengo deialdiaren berri eman nion.

Gurea gonbidapen zabala da, prentsa bidez zabaltzen duguna. **Iazko memoriaren egunaren harira, Andoaingo Udalak adierazpena argitaratu zuen. Besteak beste, honakoa adierazteko: "Memoriak terrorismo biktima guztien errekonozimendua, erreparazioa eta ez erreparatzearen bermea sustatu behar ditu". Udalak herritarrek batera ekitaldia antolatu beharko lukeela iritzi duzu? Elkarbiziren ekitaldiak hutsune horri erantzuten dio ala Udalak egin lezakeena eragotzen du?**



Mikel Arregi Elkarbizikiko kidea joan zen irailaren 16an beste herrikidarekin batera Villafañeren alde antolaturiko ekitaldian. AIURRI

"MEMORIAREN EGUNEO EKITALDIA ANTOLATZEN DUGU HUTSUNEA IKUSTEN DUGULAKO"

Eragotzi, inondik inora ez. Antolatu genuen lehen urtean azken unera arte Udalaren erabakiaren zain izan ginen. Udalak bere kabuz edo herritarrek bat eginda ekitaldia antolatuko balu, guk ez genuke gurea antolatuko. Guk antolatzen dugu hutsunea ikusten dugulako. Ez dugu Udalak edota administrazio publikoak egin dezakeen ekitaldia oztopatu nahi. Alderantziz, egiten ez denez, hutsune hori betetzea da gure asmoa.

Andoaingo Udalean, bestalde, Bizikidetza mahaia diskretuki lanean ari da. Zein balorazio egi-ten duzu?

Zerorrek esan duzu, nahiko diskretoa da. Beraz, gehiegi ez dakigu. Beste herri batzuetan bi mahai daude, bata politikoa eta beste herritarrena. Lasarte-Orian bi mahaien martxa nahiko ondo doala dirudi, bata

zein bestea. Andoaingen ez dute gehiegi adierazten, beraz ez dakigu gehiegi. Argituzekin 1960eko hamarkadatik hona txostena lantzea adostu dute, baina hortik aurrera gauza gutxi. Horrelako argitalpena denek adostasunarekin sustatzea ez dago gaizki, herrian politika mailan pausoak ematen ari diren seinalea baita. Badakigu ez dela erraza, bizikidetza gaia korapilatsua eta sentibera delako. Pausoak ematen diren heinean, herritarren mahaia osatzera pasa beharko litzatekeela iruditzen zait niri.

Andoaingo bizikidetza jardunaldi ezberdinetan herritar asko ez da hurbildu. Beste herri batzuetan ikusten den dinamismoarekin alderatuta, etsigarria iruditzen al zaizu egoera?

Ez nuke etsigarria hitza erabiliko. Tristeia dela esango nuke. Tristura handia sentitu izan dut, zeren eta oker ez banago, antolatutako ekitaldi guztietan izan naiz, herritarren partaidetza oso txikia izan delako. Hitzaldi batean, esaterako, dozena eta erdi lagun bildu ginen, eta erdia baino gehiago kanpoko zen. Horrek tristura handia ematen dit. Herri mailan gai honekin ez dugu lortzen herritarra erakartzea, ez Udalak ezta Elkarbizik ere. Eta gaia garrantzitsua da, gure etorkizuna bizikidetzaren arabera antolatu behar delako. Askoren artean, bakoitzaren jarrera aldatu behar da. Jarrerak positiboa, aldekoa izan behar du. Udaletik antolatutako ekitaldi horiek onak ziren. Ikus-entzunezkoak interesgarriak ziren, eta baita antolatu ziren bi mahai-inguruak ere. Bizikidetzaren alde jarrera aldatzeko baliagarriak ziren. Herritarren erantzun txikiak tristura eragiten dit.

Tristura bai, baina etsipenik ez. Gai honekin aurrera egin beharra dago.



Dalia Nassar palestinarra joan zen astelehenean, Andoaingo Udaletxean. AIURRI

Dalia Nassar, Palestinako ekintzaileari harrera ekitaldia

Jerusalem bizi diren palestinarren egunerokoa zeinen gogorra den azaldu zien pleno aretora hurbildutakoei

Xabier Lasa ANDOAIN

Dalia Nassar Palestinako emakume ekintzaileari harrera ofiziala egin zion Andoaingo Udalak, joan zen astelehenean. Ekitaldian Ana Carrere alkatearen eta Andoaingo talde feministaren opari bana ere jaso zituen. Protagonistak eskerrak eman ostean, Israelgo gobernuaren errepre- sioaren eraginez Jerusalemen palestinarrek bizi dituzten oztopoak zerrendatu zituen. Palestinarra eta emakumea izateagatik oztopoak areagotu egiten direla azpimarratu zuen. Israeliek Jerusalem 1948an militarki okupa-

tu zuenetik, bertako palestinarrek poliki-poliki kanporatzea izan da bere estrategia. Palestinako eskubideen aldeko "Beste Jerusalem hori" kanpainaren baitan kokatzen da Nassarren bisitaldia Euskal Herrira. Mundubat Fundazioko Fernando Vaquerizok udaletxean adierazi zuenez, "azaroaren 29an Palestinaren eskubideen aldeko nazioarteko eguna da; egun horri begira, sinadurak biltzen ari gara. Europako komunitate politikoari behingoz inplikatzeko eskatzen diogu, herrialde horri zor zaizkion giza eskubideen alde".

Langraitz bidea aztergai izango dute Urigainen, hilaren 17an

Unzueta 'Langraiz bisean bis' liburuaren egilearen eta Joseba Urrosolo ETakide ohiaren eskutik

Erredakzioa ANDOAIN

"Langraizeko bidea, bergizarteratsetik berradiskidetzearen bila" izenburupean, Elkarbizi taldeak urteko azken jardunaldia antolatuko du. Ikastaro modura aurkeztuta, hitzordua datorren azaroaren 17an izango da Urigainen, goizeko 11:00tan hasita.

Antolatzaileek horrela aurkeztu dute jardunaldia: "Ikastaroaren helburua bikoitza da. Alde batetik, indarkeriaren estrategiarekin hautsi egin duten pre-soen gogoeta prozesua ezagutzea.

Eta, bestetik, bergizarteratze prozesuek berradiskidetze sozialari ekar diezaioketena baliotzatzea". Azalpenak Hunberto Unzueta, 'Langraiz bisean bis' liburuaren egileak eta Joseba Urrosolo ETakide ohiak eskainiko dituzte.

Antolatzaileek, ohikoa dutenez, aldeztu aurretik izena emateko eskaera luzatu dute.

Epea datorren azaroaren 15ean amaituko da. Izena emateko, posta elektronikoa bidali behar da ganboiturri@gmail.com emailera.



Sarituak eta sari emaleak, erakundeen ordezkariekin batera, Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak ekitaldiaren amaieran ateratako argazkian. **AJURRI**

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak

Sariketaren hogeitamargarren ediziora iritsita, Andoaingo Udalak atzera begirakoa egin eta kazetaritza garaikidearen hamar mugarriak saritzea erabaki zuen. Iraganaren atea erabat itxi gabe, sariketak berrikuntzak ekarriko ditu 2019ko ediziotik aurrera

Erredakzioa ANDOAIN

"Euskararen normalizazioak ezinbestez behar ditu euskaraz egindako kazetaritza eta komunikazio prestu eta modernoak, kalitatezkoa eta garaian garaiko beharizanetara egokitua". Ana

Carrere alkateak 1988ko lehen edizioaren hitz horiek berreskuratu zituen Basteron, sariketaren helburua gogora ekarri. Eta Andoaingo kazetariaren izena aipagai izan zuen, ezinbestean: "Andoaindarrok pozik eta harro

gaude Euskal Herriko euskarazko kazetaritza sari nagusia Rikardo Arregi Saria izateaz". Urriaren 26an, mugarriak hizpide izan zituzten, aurrera begiratzearekin batera. Dagoeneko edizio berria martxan baitago.

Aitortza eta eskertza ekitaldia



ANDOAINGO UDALA
ANA CARRERE

"Euskararen erabilera biziberritzeko konpromisoak bultzatuta sortu zuen Udalak, 1988an. 'Euskararen normalizazioak ezinbestez behar ditu euskaraz egindako kazetaritza eta komunikazio prestu eta modernoak, kalitatezkoa eta garaian garaiko beharizanetara egokitua'. Hitz horietan laburbildu zuen Udalak sariaren helburua. Etorkizunean indarberrituta etorriko da. Hori da Udalaren konpromisoa".



EUSKO JAURLARITZA
BINGEN ZUPIRIA

"Hiru hamarkada hauetan euskarak azken mendeotako biziberritzerik azpimarragarriena bizi izan du. Erakunde publikoek eta hainbat eragilek lan handia egin dute euskarak galdutako denbora berreskura zezan. Bide horretan, funtsezkoa izan da hedabide publiko zein pribatuek egin duten ahalegina euskarazko kalitatezko informazioa eta entretenimendua euskal herritarrengana helarazteko".

Euskal kazetaritza garaikidearen hamar mugarriak



ANAITASUNA
ANGEL ZELAIETA

Merezimendua:

Euskal prentsa berriaren erreferentia izan da Anaitasuna. Sari hau merezi du bi arrazoi nagusirengatik: Batetik, newsmagazine eredu euskarazko prentsara ekartzeagatik: formatu modernoak, eduki modernoak, kazetaritza modernoak. Bestetik, euskara batuari egindako ekarpenagatik.

Sarituaren adierazpena:

"Milesker zuen txaloengatik. Bilboko Zazpi kaleetan Anaitasuna sortzeko bilera zegoela esan zidaten. Eta bilera hartan zuzendari izateko enkargua jaso nuen. Beraz, eurak ipinitako penitentzia izan zen".




ELHUYAR
AITZIBER AGIRRE

Merezimendua:

Zientzia eta teknologia euskaraz landu, ezagutu eta zabaltzearen alor idor hura ongi asko umotu du Elhuyarrek urte hauetan guztietan, euskarazko kazetaritza eta komunikazioaren ikuspegian mugarri gisa azaltzeraino.

Sarituaren adierazpena:

"Euskara eta zientzia biak minoritarioak dira. Eta ekonomikoki sustengatzea, are zailagoa. Ahalegina egiten jarraituko dugu aurrerantzean. Horrelako sariak, euskal komunikabideen eremua zein sendoa den ikusita, indarra ematen digu".



ZERUKO ARGIA-ARGIA
ESTITXU EIZAGIRRE

Merezimendua:

1980an, kaputxinoek aldizkariaren jabetza izateari utzi, Argia izena hartu eta ordutik hona etengabeko berrikuntzan jardun du: astekari osoa koloretan inprimatu eta Internetera salto egin, eduki guztiak doan emanaz gainera.

Sarituaren adierazpena:

"Gaur Argia egiten dugunok ere asmatu nahi dugulako, duela 40 urte ARGIA egiten zutenek bezala, gure garaioak izaten eta, era berean, garai guztietarako balio duten printzipio batzuen arabera lan egiten: euskara, burujabetza eta independentzia. Nondik gatozen badakigulako. Baita nora goazen ere".



EUSKALDUNON EGUNKARIA
MARTXELO OTAMENDI

Merezimendua:

Egunkariaren sustatzaile eta arduradunen zerrenda luzea da. Horietatik dagoeneko gure artean ez direnak aipatzera mugatuko gara, guztien ekarpenaren aitortza moduan: Martin Ugalde, Joxemi Zumalabe, Joseba Jaka eta, geroago, Joxan Lizarribar.

Sarituaren adierazpena:

"Lizardi edota Rikardo Arregi hasi ziren aspaldian euskarazko egunkariaren alde egiten. Gaur egungo euskal prentsan, oro har, kalitatea eta anbizioa dago. Profesionalei eta hartzaileei zor diegu hori".



TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
AITOR AROZENA

Merezimendua:

Jadanik sendoturik ematen duen errealtate horrek bere aitzindaria izan zuen, bistan dena. Ttipi-Ttapa aldizkaria Beran sortu zen 1982an, gaur egun indartsuago ageri diren bertze aldizkari batzuk baino hainbat urte lehenago.

Sarituaren adierazpena:

"Pausoz pauso, urratsez urrats, ttipi-ttapa egin dugu bidea gaur arte, 38 urtez. Milesker herrietako berriemaile eta laguntzaileei, babesa eman diguten erakunde eta komertzioei... beraiek gabe ez zen posible izanzen bide malkartsu honetan aitzinera egitea. Eta milesker Andoaingo Udalari eta Eusko Jaurilaritzari ere".



EUSKAL IRRATIAK
MARITXU LOPEPE

Merezimendua:

Auzolanari esker 80ko hamarkadako aitzindarien proiektua sendotu zuen Euskal irratia taldeak, erronka berriei ekiteko gai izanik.

Sarituaren adierazpena:

"Hego Euskal Herrian komunikazio sistemak askoz garatuago gaude, eta gu ttipiagoko gara. Eskuara ez da hain indartsua ere, baina uste dut denen lana osagarri eta beharrezko dela. Saiatzen gara gure eremuan ahal bezainbat egiten. 35 urte hauetan kazetaritza jarduna modernizatzen saiatu gara, gaurko tresnekin hurbiltasuna landuz".



EHU-KO FAKULTATEA
NEKANE BALLUERKA, SIMON PEÑA

Merezimendua:

Euskal kazetari profesionalik gabe ez legoke euskarazko kazetaritza modernorik. Baieztapen horri helduta bigarrena egin daiteke: azken hiru hamarkadetan euskarazko kazetaritzaren esparruari giza baliabideetan ekarpen esanguratsua egin dion erakunderik bada, hori UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea dugu.

Sarituaren adierazpena:

"Oso pozik gaude sariak herriaren alde egindako ekarpena saritzen duelako. Kazetaritzaren eremuan, eta bereziki euskararen eremuan. Sarituen artean EHUtik ateratako ikasle ohiak ikusi ditugu, gainera".




EIBAR.ORG
LUISTXO FERNANDEZ

Merezimendua:

Ekintzaile ospea daukate eibartarrek, eta, euskarazko komunikazioari dagokionez behinik behin, ondo merezia daukate fama. Interneten euskarazko edukiak behar zirela eta, Eibarri buruzko atari estatikoa etorri zen: www.eibar.org atariaz ari gara.

Sarituaren adierazpena:

"Komunikazioa gaur egun herritarren esku dago, eta bitartekaririk gabe. Internetek ahots propioa izatea ahalbidetzen du. Behean gaudenok zerbait esateko aukera badugu, eta hori egi bihurtzeko sortu zen Eibar.org".



EITB
MAITE ITURBE

Merezimendua:

Euskarazko irratia eta telebistan landu zen kazetaritzaren inguruko hiztegi bete bat, osatu ziren, kiroletan, politikan eta beste hamaika esparrutan, gaur berezki ditugun hitz eta esapideak, askotan eguneroko hizketara ere ekarri ditugunak.

Sarituaren adierazpena:

"Ohorea eta plazerra da EITBren izenean, eta batez ere EITBko kazetari guztien izenean, XXX. Rikardo Arregi kazetaritza saria jasotzea. Sarietaren gakoak kalitatea, eredugarritasuna eta berrikuntza izanik, sarituen zerrenda honetan egoteak harro sentiarazten gaitu".



GOIENA
IBAN ARANTZABAL

Merezimendua:

Lorpenaren eta arrakastaren eredu garbia dugu Goiena, tokiko kazetaritza eta komunikazioan aitzindari aparta. Goiena euskarazko kazetaritza eta komunikazioaren oso mugarri sendotzat jotzeaz gain, tokiko hedabideen erreferentzia nagusizat daukagu.

Sarituaren adierazpena:

"Tokiko hedabideetan gabiltzan guztiei sariaren zatitxo bana emango nieke. Bereziki, Tokikomeko gure bazkideei, lan handia egiten ari garelako elkarrekin".

Aspanogiren aldeko jaialdia Basteron

Andoaingo hainbat eragilek minbizia duten haurrekin lan egiten duen Aspanogi Gipuzkoako elkartearen aldeko musika eta dantza jaialdia aurkeztu dute. Basteron izango da hurrengo abenduaren 9an

Xabier Lasa ANDOAIN

Aurkezpen ekitaldian izan ziren Olagain txistulari elkarteak Josune Orbegoza eta Lurdes Pagola, Soinuak musika eskolako Garbiñe Aizpurua eta Nahia Gorostidi, Gora Kaletxiki Bandako Joxerramon Berrondo eta Joxe Mari Oiartzabal, Alberto Agirre abesbatzako Jexus Mari Beraza, eta azkenik, Luis Gil, Andrea Cuerva eta Tomas Cuerva, Triana elkarteak kideak. Haiekin guztiekin batera, Aspanogi elkarteak lehendakaria den Bittor Andonegi izan zen.

Triana elkarteak Gil izan zen jaialdiaren asmoa aurkeztu zuena. Emozioari ezin eutsirik egin zuen aitorpena: “Jada gaintututa daukadan minbizia jasan nuen duela urte batzuk. Onkologiko egonaldietan haurrak ikusten nituen, eta horrek erabat markatu ninduen. Harrezkero, haurren alde zerbait egiteko temata nengoen. Iaz, urtero Trianak urte amaiera aldera antolatu ohi duen jaialdia Eguberrietako kantuen inguruan izan zen. Aurtengorako, Aspanogi elkartearen aldeko ekitaldi solidarioa egitea ondo iruditu zitzaigun”. Luis Gil Joxe Mari Oiartzabal musikariarekin eta Gora Kaletxiki Bandarekin harremanetan jarri zen, jaialdiaren ideia proposatzeko. Era horretan abiatu zen jaialdia.

Gertutasuna

Gora Kaletxiki Bandako Joxerramon Berrondok eman zituen jaialdiari buruzko xehetasunak, aurkezpen ekitaldian. Diru bilketaren gainetik elkartasuna transmititu nahia dagoela adierazi zuen: “Herritik sortua eta herriarentzako ekimena da, eta ahalik eta musikari eta dantzari gehienek parte har dezaten saiatu gara. Erarik alaienean, musikaz eta dantzaz baliatuz, Aspanogiko jendeak Andoaingo herriaren aitormena, elkartasu-



Jaialdiaren aurkezpen ekitaldia egin zuten Trianaren egoitzan. AIURRI

na, goxotasuna, gertutasuna eta enpatia sentitzea nahi dugu. Denok daukagu gertu pertsonaren bat minbiziaren prozesua bizi duena, eta horrek sentibera jartzen gaitu”.

Bittor Andonegi Aspanogiko lehendakariak eskerrak eman zizkien jaialdiko antolatzaileei eta parte-hartzaile guztiei: “Aspaldian oso babestuta sentitzen gara Gipuzkoa osoan. Badakigu mundua diruak mugitzen duela, baina bene-benetan energiak betetzen gaituena Andoaingo kultur eragileek adierazten diguten hurbiltasun pertsonala da”.

Dantza eta musika, uztarturik

Dantza eta musika izango dira jaialdiaren ardatz nagusiak, Joxe Mari Oiartzabal musikariak egituratu duena. Urkiko dantzariak eta aretoko dantzan munduko txapelduna den Amaia Gonzalezek nork bere erara egingo dute dantza, agurrari euskal eta flamenko kutsua emanez.

Ondoren, Andoaingo hainbat musika taldeen emanaldiak kateatuko dira, bata bestearen segidan: Soinuak Musika Esko-

la, Olagain Txistularien elkarte, Alberto Agirre abesbatza eta Gora Kale txiki Banda (Hernaniko Udal bandako musikariekin sendotuta). Elkarrekin zenbait abesti ere joko dituzte.

Marife Nogales mezo sopranoaren parte-hartzea

Ekitaldian zehar Triana eta Urkiko dantzariak elkarte horren ereserkia dantzatzuko dute, Gora Kale Txiki Bandaren laguntzarekin. Aldi berean, Marife Nogales mezo soprano andoaindarrak bi euskal kanta interpretatzuko ditu. Azken partean, parte-hartzaile guztiak oholtzan elkartu, eta “Lau Teilatu”, “Xalbadorren heriotzean” eta “Andoaingo ereserkia” eskainiko dituzte.

Jaialdia osatzuko duten dantzari eta musikari guztiak musutruk ariko dira, eta Aspanogi elkartearentzat izango da biltzen den diru guztia. Sarrerak azaroaren 15etik aurrera erosi ahal izango dira, aurrez jakinaraziko diren herriko saltokietan. Aldi berean, eltzetsuak eta “zero lerroa” ere eskura jarriko dira, Basteroko jaialdira hurbildu ezin arren diru ekarpena egin nahi duen edonorentzat.



Ormaetxea gai-jartzailea, Irazu, Mendiluze, Mujika eta Agirre, Goiburun. AIURRI

Bertso saioa Goiburun

Mujika, Mendiluze, Irazu eta Agirre kantari aritu ziren San Esteban ermitan, joan zen urriaren 31n

Xabier Lasa ANDOAIN

Ganaduzalea eta nekazal turismoa jabea; euskal Halloweenaren aldeko eta Halloween amerikarraren aldeko haur hezitzaileak; merkatalgune bereko atarian jarritako bi eskale, Francoren gorpua San Estebango ermitan lurperatzera doazen zurrumurrua edo Sorabillako jaiak bukatzera doazela hizpide izan zituzten bertsolariak. Aurrean, bertsozale mordoska zuten, eta saioaren amaieran, mokaduaz eta edariez gozatzeko aukera izan zuten. Punttuka Andoaingo bertso eskolak antolatu zuen saioa, eta San Estebango Segar gazteen elkartearen eta Andoaingo Udalarren laguntzarekin.

Mendiluze eta Sorabillako jaiak

Sorabillako Jai Batzordeak adierazi berri du aurtengoa dela jaiak antolatuko dituen azkena. Ormaetxeak sorabillatarra kantuan jarri zuen: “Zu Batzordeko kidea zara. Orain bukatu berri dira jaiak, eta semea etorri zaizu esanez: hurrengo urterako festak iristeko desiatzen nago, aita”.

Aurtengo festak bukatu dira egutegia jirata eta hurrengo urtekoekin zer ari zera bueltaka? Guk aurtengoa degu azkena, hemen jarri degu marka. Ta erabakia hartua dago hobe lanetik aparta, hau gehiagi izan da-ta (bis) Jubilatua antolaketan ta erreleboa falta.

Lau katu ezin daitezke jardun denen gurditik tiraka (bis)

Behin esan eta etortzen dira arrazoiaren galdean. Baina gaur arte ez dira asko saiatu izan taldean. Ez laguntza ta ez esker onik, ez degu izan aldean. Eta aurrera orain bezela babes handirik gabe. Nork segi martxa berean? (bis) Aurpegi berak eta esku berak lau egunetan daude han, beste zenbaitzuk goza daitezen igande arratsaldean.

Hartu genuen gogotsu eta hartu genuen adorez. Bainan haseran larrosa zena mudatzen joan da kolorez. Len hasieran benga animo! eta bukaeran faborez. Gero, orde, beti berdinak txandaka aritu orde, jaien testigua gordez (bis) Ia ez gera sentitzen berriz honi eusteko balorez. Gu laguntzeko prest gaude baina guztia egiteko ez (bis)

Umea zera eta galdezka hor zauzkat aldamenean, beti galderak sortzen baitira asmo baten azkenean. Zuk hurrengoa dezu buruan iltzatu gabe lenean. Baina esan dizut zer gertatu den urteen ondorenean, nekeak jo gaituenean (bis) Agian noizbait piztuko dira hori badezu senean, auzo izaten jarraitzen badu zu heldua zarenean. (bis)

Bertsoak aiurri.eus gunean

Webgunean eta Youtube kanalean bideo gehiago ikusgai daude.

Bilketa selektiboa nabarmen igo da Urnietan

Edukiontzia marroiairen eta grisaren itxiera mugatuak eragin zuzena izan du bilketa selektiboaren igoeran, horixe da Urnietako udalaren ondorio nagusia. Gauzak horrela, geroz eta organiko gehiago bereiztu eta errefusara geroz eta gutxiago botatzen da

Jon Ander Ubeda URNIETA

Zarraila automatikoa ipintzeak eta irekiera mugatzeak zerikusi zuzena izan du hondakinen bilketa tasaren igoeran. Bereziki, organikoari eta errefusari dagokionean. Orain gutxi arte, biak nahasita botatzen ziren, eta horrek birziklaketa tasa txikia sortzen zuen. Plastikoa da bolumen handiena hartzen duen hondakina, eta organikoa pisu gehiena duena. Errefusarena, behin sailkatzen hasita, ez da etxebizitzatan gehien betetzen den edukiontza. Horixe da egoki birziklatzen duten guztien ondorioz garbiena. Ohitura egokiak hartuz gero, norberatik hasita, sailkatzearen alde asko egin daiteke.

Eta emaitzak bistakoak dira. Urnietan errefusari eta organikoari dagozkion emaitzak aurkeztu dituzte, eta bien garapena proportzionala da. Organikoaren bilketa goruntz doan bezala, errefusa murriztuz doa. Horrek berarekin dakar bilketa datu orokorrak igotzea.

Urnietako Udalaren balorazioa

Prentsa ohar bidez igorritako idatzian, poza agertu dute: "Datuekin ikusten da herritarrak sistema berrira egokitze ahal-egin berezia egiten ari direla, eta Urnietan ibilbide egokia egiten ari dela. Horrenbestez, Udalak eskerrak eman nahi dizkie herritarrei, baina era berean, jarrera horri jarraipena emateko eta ez erlaxatzeko eskatzen die. Oraindik badaudelako hobetzeko joerak, organikoaren edukiontzira botatzen diren hondakin desegokiak esaterako".

ORGANIKOAREN BILKETA GORUNTZ DOAN BEZALA, ERREFUSA MURRIZTUZ DOA



Bilketaren garapena



Organikoaren bilketa

2017:
%51,5

2017ko urtarriletik abuztura bitarteko datuak, bilketa boluntarioa zenean.

216.640 Kg.

2017ko urtarriletik abuztura edukiontzi organikoan jasotakoa.

2018:
%69,2

2018ko urtarriletik abuztura bitarte, edukiontzien irekiera astean bi egunetara mugatu zenean.

333.390 Kg.

2018ko urtarriletik abuztura edukiontzi organikoan jasotakoa.

Errefusaren bilketa

950.808 Kg.

2017ko urtarriletik abuztura edukiontzi grisean jasotakoa.

599.506 Kg.

2018ko urtarriletik abuztura edukiontzi grisean jasotakoa.

Azpiegitura eta zerbitzuei loturiko erabakiak hartu dituzte

Udalaren osoko plenoak urrats berriak eman ditu Etenetako igogailuari eta kiroldegi berriari dagokionez

Erredakzioa URNIETA

Urriaren 29ko Udal batzaraldian hainbat erabaki hartu zituzten, horien artean, Eteneta-San Juan eremuko igogailuari dagokiona. Eraikitze egin beharreko obraren pleguak onartu ziren bilkuran, eta ondorioz, gero eta gertuago dago eraikuntza lanak hasteko eguna.

Kiroldegi berriari lotutako erabakia

Igerilekuko uraren zirkulaziorako tresneria epe laburrean botako duten eraikinaren barruan aurkitzen da. Eta horri irtenbidea eman nahian, Udalak obra hori gauzatzeko plegua prestatu eta onartu du. Udalak adierazi duenez, azpiegitura hori tokiz aldatzea kiroldegia eraberritzeko lehenengo pausotzat har daiteke.

Ordenantza fiskalak 2019rako

Tasa eta zerga berriak ezarri dituzte 2019rako. Uraren kontsumoan ez da igoerarik ezarriko. Zaborrei dagokienez ere, birziklatzen duten familiek diru kopuru berdina ordaintzen jarraituko dute. Autokonposta egiten dutenek, ordea, aurreantzean hiru hilabetez behin 25 euro ordaindu beharrean 22 euro ordainduko dituzte.

Beste zerga batzuetan igoerak izango dira, beti ere IPCa edo KPIa aintzat hartuta. Estolderia %2 igoko da. Trakzio mekanikoko ibilgailuen kasuan, %2,2. Auto elektrikoa, hibridoa eta familia ugarien kasuan hobariak edo beherapenak ezarriko dira.

Ikastaroetan ere hobariak aplikatuko zaizkie familia ugariei, izena emango duten kide bakoitzeko, %20koa.



Urriaren 25ean Magaleko instalakuntza berriak inauguratu zituzten. MAGALE

Instalakuntza berrien irekiera ekitaldia Magale ikastetxean

Bi solairuko gunen berriaren aurkezpenean egin zuten urriko azken astean, Urnietako ikastetxean

Erredakzioa URNIETA

Irekiera ekitaldian Rafael Cristobal psikiatrak, Mikel Pagola alkateak, Magaleko zuzendari Agustin Urretabizkaiak, Kristau Eskolako zuzendari Mikel Ormazabalak eta Maria Jesus Nuñezek parte hartu zuten, instalakuntza berrien garrantzia na-

barmentzeko. Instalakuntzak guztiz eraberritu dira, hiru dimentsiotako egiturez osatutako gunean umeek askotariko jarduerak burutu ditzaten. Aldaketa horiek guztiek helburu pedagogikoa dute: Konfiantzaren pedagogia aurrera eramaten laguntzea.

Aho nahiz belarrietan euskara

Dakitenak pixkanaka gero eta gehiago badira ere, erabiltzen dutenak hainbeste ez direlako sortu dira *Euskara ari du*, *Baietz Hernanik!* edo *Euskaraldia* bezalako egitasmoak; askok familian hartu dute erronka, euskaraz aritzea ohitura bihur dadin

Erredakzioa BETERRI-BURUNTZA

Eustaten datuen arabera, dagoeneko 2006an ikusten zen familietan euskararen erabilerak ez zuela egiten gora, euskara zekitenek adina. EAEko datuak kontuan hartuta, etxean euskara edo nagusiki euskara erabiltzen dutenak %13-14aren bueltan dabilta, eta datua ez da apenas aldatu azken 25 urteotan.

Herrialdeka badira desberdintasunak, noski. Gipuzkoan, esaterako, %25-26 bueltan dabilta, baina hemen ere joera ez da goranzkoa eta kopuruari ozta-ozta eutsi besterik ez zaio egiten.

Kaleko erabilerara salto egiten badugu, joerak ez dira bestelakoak. Soziolinguistika Klusterrak 2016an egindako azken neurke-

tan emandako datuen arabera, Euskal Herrian %11-12 dira kalean euskaraz ari direnak (10 urtetan ez da aldatu); Gipuzkoan, %31, eta gora ez egiteaz gain, beherezko joera txiki bat ere sumatu da.

Ikerketek erakutsi dute etxeak eragin handia duela hizkuntza bat ala beste erabiltzeko joera finkatzean; euskara erabiltzen

duenak erabiliko du etxetik kanpo ere. Beraz, familia transmisioaz ari garelarik, seme-alabei hizkuntzaren ezagutza transmititzeaz gain, etxeko hizkuntza euskara izatea oso garrantzitsua da. Horretaz jabetuta, Buruntzaldeko udalerriek sustatuta, adibidez, 2008an egin zen ikerketa xume bat, aztertze bikoitekideen hizkuntza ohiturak aldagarriak ote diren eta hala bada, horretarako gakoak zein diren. 16 bikote aztertu ziren, eta ondorioetako batzuk dira: posible da, erabaki eta zirt-zart egin behar da, eta bietako batek sendo eutsi behar dio.

Orduko hainbat ondorio nabarmendu dira dagoeneko, Hernanin Euskara Ari Du elkarteak martxan jarritako *Baietz Hernanik!* erronkan parte hartu dutenengan, eta litekeena da hastear den Euskaraldian parte hartuko dutenek ere horrelakoak bizitzea.

Lorpenak gehiago, zailtasunak baino

Hain zuzen, hizkuntza ohiturak aldatu eta euskaraz gehiago egiteko erronkak hartzeko sortu da *Baietz Hernanik!* egitasmoa 2018ko urte osorako, eta azaroaren 23tik abenduaren 3ra, berriz, Euskaraldia egitasmoa jarriko da martxan Beterri-Buruntzako beste herrietan eta Euskal Herri osoan.

Dagoeneko Internet bidez eman daiteke izena: www.euskaraldia.eus.

Baietz Hernanik! egitasmoari dagokionez, irailaren amaierara arte 802 erronkalarik egin dute bat. Parte-hartzaileen %52 30-44 urte artekoak dira, eta orokorrean, emakumeak dira gehiago: %62. Erronka motari dagokionez, %30 eremu guztietan ari dira euskaraz; %15, lankideekin; %10 bikotekideekin; %9 koadrilan; eta %8 familian.

"Aita whatsapparekin ari da, eta euskaraz"



AINARA AZPIAZU ADURIZ 'AXPI'

Urtebeteko erronkan ari da 'Axi', aitarekin euskaraz eginez, eta euskarak etxean presentzia handiagoa hartu duela dio

"Itxaropen gutxiago" omen zeukan Ainara Azpiazu Aduriz 'Axi', Hernaniko Euskara Ari Du elkarteak bultzatutako *Baietz Hernanik!* erronkan izena ematerakoan.

Aitarekin euskaraz gehiago egiteko ahaleginari eutsi dio, eta emaitzak ikusita, aurrera jarraitzeko asmotan dabil. Hemendik gutxira hasiko den Euskaraldian izena ematekotan da; oraingoan, baita amarekin ere.

Euskalduna du aita, eta erdalduna, ama; Parisen hazitakoa. Aiton-amonak bizi zirenean euskaraz egiten zutela dio, baina "falta direnetik joera handiagoa" izan dutela erdaraz egiteko. "Ni ere etxetik kanpo bizi naiz orain, eta elkartzen garenean, erdaraz gehiago egiten dugu".



Ainara Azpiazu Aduriz 'Axi'.

Horregatik eman zuen izena; bereziki, aitarekin euskaraz egiteko ohitura berreskuratzeko. Ez zuen amarekin beste erronka bati eustea pentsatu, zailagoa zelakoan. "Denok egiten dugu zerbait, amak ere, gu entzunda, zer edo zer atera baitezake". Eta uste baino gehiago atera dute denek. "Pixkanaka ari gara. Orain gutxi, aita whatsapparekin hasi da, eta euskaraz. Aurrerapena da hori. Alfabetatu gabea da, eta agian, Kronika irakurtzen duelako-edo, animatu da, eta nahiko txukun!". Horrez gain, amarekin ere sorpresa hartu duela dio. "Erronka hori hartu ez banuen ere, zeharkako erronka izan da amak ere euskaraz gero eta gehiago entzun eta ulertzea, eta konturatu naiz ematen duena baino gehiago dakiela. Behartuz gero pixka bat, konturatzen zara".

Zailtasunak ere izaten dira, noski. "Ama euskaltegian ere ibili zen, baina mantsoago ari da, oso urduri jartzen baita, nahiz eta tokatu zaion euskaraz egitea familiarekin". Hori ikusita, zailagoa egiten da gogor egitea. "Batzuetan amorrazioa eta etsipena sentitzen ditut, ez dakidalako zein estrategia sortu, beti neureari eustea baino. Baina agian nire begietatik begiratu ikusten dut horrela. Izan

ere, etxetik kanpoko batek egiten dionean euskaraz, jarraitu egiten dio, eta maila hobea erakusten du".

Aitarekin, berriz, galdutakoak ematen dio amorrazioa. "Amorrazio handia ematen dit aitak bere euskara erabiltzen ez duela ikusteak. Oso hemengoa du. Konturatu naiz hemen bustiagoa egiten dugula, oso polita".

Erronka berrien bila

Guztia balantzan jarrita, pozik dago lortutakoarekin, eta jendea animatu nahi du abendura arte geratzen den denboran *Baietz Hernanik!* erronkan parte hartzea eta Euskaraldiarekin ere bat egitera. "Itxaropen gutxiago neukan. Baina gogor eginda, emaitzak ikusi ditut. Baita amarekin ere! Eta ez nuen pentsatu ere egin. Ezustekoa hartu dut. Baita nire buruarekin ere. Arreta jarrita, lagundu dit nire akatsak ikusten ere; adibidez, erdarakadak uste baino gehiago erabiltzen ditudala".

Urtebeteko erronka hartu du, eta horrek, "benetan ohitura aldatu eta barneratuta geratzen lagundu" diola dio. "Uste dut erronkak egiten jarraituko dugula. Euskaraldiak ere izango du eragina. Orain, aitarekin Ahobizi eta amarekin Belarriprest aritu beharko dugu!".

*Publierreportajea: Beterri-Buruntzako Udaletako euskara lansailek babestutako edukia

"Euskarari eusteko erronka izan da saria"



LUZI CASCO ETA GERARDO BILBAO

Etxeko hizkuntza ohitura aldatu dute. Erdaraz egitetik, euskaraz egitera pasa dira: "Egun batzuetako kontua izan da!"

Euskaltegian ezagutu zuten elkar Luzi Casco eta Gerardo Bilbao. Ama hizkuntza gaztelania dute, eta 18 urterekin hasi ziren euskara ikasten. "Biteriko eskolan abestiren bat-edo, ikasi genuen, baina ezer gutxi gehiago", dio Gerardok. Luzik irakasle izateko eman zuen izena euskaltegian. "Lan egiteko derrigor ikasi behar nuen, eta EGA behar nuen". Bien arteko harremana, beraz, euskaraz hasi zuten. "Baina familiak erdaldunak dira, eta bata besteara ezagutzean, erdarara itzuli ginen".

Erronka, oparia

Horrela, lagun batek Baietz Hernanik! egitasmoan parte hartzeko animatzeko deitu zienean,



Luzi Casco eta Gerardo Bilbao.

pozik eman zuten izena. "Argi ikusi nuen zein zen erronka; Gerardorekin euskaraz egitea, eta ahizpa txikiarekin ere bai. Hark eskolan ikasi zuen, eta bere seme-alabekin ere euskaraz egiten dut", dio Luzik.

Gerardo ere ados agertu zen. "Beti genuen asmoa, baina pausoa ematea falta genuen. Euskaratik atzerapausoa eman genuen, eta hau izan da gu ohartarazteko modu bat". Eskerrak ematen bukatu dute, azkenean! "Euskarari eusteko erronka izan da saria, falta genuen bultzada, alferkeriari edo utzikeriari aurre egiteko".

Aldaketa, egun gutxitan

Hasieran 'erronka' hitzak berak izutu zituen zertxobait. "Bete beharrekoa da, eta norberak egin behar du bultzat! Hasieran pentsatu genuen zaila izango zela, baina etxetik atera ginen batean, biok ixilik, txipa aldatu eta euskaraz egiteari ekin genion. Hiruzpalau egunetan txipa aldatua genuen", azaldu du Luzik.

Zailtasunei erraz egin diete aurre, gainera, Gerardoren arabera. "Momenturen batean agian ateratzen da esaldiren bat erdaraz, baina konturatzen gara.

Egun batzuetan hain erraz lortuta, atzera begiratu eta erdaraz egin izana arraroa egiten da!".

Pozik daude biak egindako aldaketarekin, eta etxean hasitakoa, familiako beste kideengana ere zabaltzekotan dira. "Oso pozik gaude. Lehen oporetara joan eta gaztelaniaz entzuten gintuztenean espainolak ote ginen galdetzen ziguten, eta guk ezetz, euskaldunak ginela, baina erdaraz ari ginen eta lotsatu egiten ginen! Orain, berriz, amari ere euskaraz egiten hasi naiz ia konturatu gabe, ulertzen ez badu ere!", dio Luzik.

Erronka berriak, Euskaraldirako

Euskaraldian ere izena emango dute. «Ikusi dugu egitasmo txikiakin, pixkanaka, zenbat lortzen den. Aurreneko hitza euskaraz egingo dugu beti, ez baitakizu aurrean dagoenak badakien edo ez", dio Luzik.

Gerardok, berriz, "euskaraz gehiago irakurtzea" dauka orain helburu, "erronka txikiak hartzea", alegia. "Oso esperientzia ona izan da. Saria. Lana eman digu euskarak, baina poza eta maitasuna ere bai!". Ados dago Luzi. "Behin hasita, ez dago atzera bueltarik!".

"Giltza ohitura aldaketa da"



URKO APAOLAZA AVILA

Urte hasieran animatu zen euskarari eusteko erronka hartzera; familian elkartzen direnean erdarara jotzeko joerari buelta ematen ari da

Urte hasieran animatu zen Urko Apaolaza euskarari eusteko erronka hartzera; familian elkartzen direnean erdarara jotzeko joerari buelta ematen ari da. "Badaude euskara ulertzen ez dutenak edo ulertzeko zailtasunak dauzkatenak, eta horregatik, erdarara jotzeko joera izaten dugu, baita euskaraz dakigunon artean ere. Horri nolabait buelta ematea da hartu dudana erronka".

Euskara Ari Du kanpainarekin hasi zenetik da erronkalari, eta horrek eragin dio zailtasunen bat. Baina ez du etsi. "Gurea ez da eguneroko erronka, eta horregatik, zailagoa da urratsak ematen ari zarela



Urko Apaolaza.

ikustea; horrek motibazioan eragina dauka, baina saiatu egin behar!".

Hainbat estrategia

Taldean arituta, pentsa daiteke aparteko ahalegina egiten ari dela Apaolaza, baina eusteko atseginak ere izan ditu. "Zailagoa izan daiteke batzuen eta besteen inplikazioa ezberdina delako, baina aberasgarriagoa ere bada, gutxien espero duzunak hartu baitezake jarrera proaktiboena".

Eta noski, estrategiak ere ez dira berdinak. "Euskaraz ez dakitenekin saiatzen naiz estrategia desberdinak erabiltzen. Euskaraz dakitenekin, aldiz, euskarari eustea nahikoa izaten da normalean, eta bestela, keinu txiki bat edo hitz bat esatearekin ohartzen dira, eta euskarara pasatzen dira berriz".

Aliatu berezirik ere ez du falta, hala ere. "Bikotekidearekin eta amarekin hitz egin dut gehien gai honi buruz, eta haien laguntza daukat. Ama eta biok, gainera, duela bi urtetik ari gara euskarari eutsi nahian. Txikiak ginenean ikasi zuen euskara gurekin aritzeko, eta ahalegin hura itzultzeko eta eskertzeko modu bat ere bada".

Euskara Ari Du edo Euskaraldia, "akuilu oso ona"

Ia urtebeteko esperientziaren ondoren, lortutakoari luzaroan eusteko itxaropena dauka Apaolazak. "Giltza ohitura aldaketa da, eguneroko gosaria aldatzen duzun bezalaxe. Gero, bihotzak ez ezik, gorputzak ere eskatuko digu gure artean euskaraz egitea". Horrexegatik, animatzen du mundu guztia modu batean edo bestean euskarari eusteko ahalegina egitera eta eustera. "Akuilu oso ona da bebingoz euskaraz aritzeko, konplexurik gabe, inori baimenik edo barkamenik eskatu behar izan gabe".

Mintzalaguna egitasmoa Andoainen



"Euskara praktikatu nahi baduzu edo horretan lagundu, eman izena Andoaingo Mintzalaguna ekimenean. Zerbait hartu, paseatzera joan, erakusketa bat ikusi... Aisialdian euskaraz egingo duzu edo Andoaingo euskararen erabilerari bultzada bat ematen lagunduko duzu.

Laguntza eskainiko duen euskalduna edo euskara praktikatu nahi duena izan zaitezke. Intersa baduzu, eman izena Euskara zerbitzuan euskarazerbizua@andoain.eus / 943 30 08 31) edo Andoaingo AEK euskaltegian (andoain@aek.eus / 662 13 25 58".

Formakuntza saioa txirrindularientzat

Txirrindularien prestakuntza, talde profesionalen egituraketa eta antolaketa izango dira Andoaingo Txirrindulari Eskolaren formakuntza saioaren ardatz nagusiak. Ekitaldia ostiral honetan hasiko da arratsaldeko 18:30ean Andoaingo Bastero kulturgunean

Xabier Lasa ANDOAIN
Andoaingo Txirrindulari Eskolak txirrindularitza sustatzen darrai, eta formakuntzaren alorrean hiruugarren saioa iragarri du. Ostiral honetan izango da (azaroak 9), eta oraingo honetan talde profesionalen egituraz, antolaketaz eta txirrindularien prestakuntzaz arituko dira. Hasteko eta behin Movistar Team taldeko Iosune Murillo prestatzaileak txirrindulari profesionalak ego-kitutako entrenamendua azalduko du.

Caja Rural – Seguros RGA taldeko ordezkaritza zabala
Segidan, talde profesionalen egitura eta antolaketari buruz hitz egiteko, Caja Rural – Seguros RGA txirrindulari talde nafarra hurbilduko da Andoainera. Ordezkaritza zabala dator: Juan Manuel Hernandez manager nagusia, Josemi Fernandez kirol zuzendaria eta Alex Aranburu eta Jon Irisarri txirrindulariak. Prestakuntza saioaren iraupena bi ordukoa izango da.



Jon Irisarri eta Alex Aranburu txirrindulariak Basteron izango dira. CAJA RURAL-RGA

Sarrera irekia da, doakoa, baina antolatzaileek aurretik izena ematea eskertuko lukete: "Izena ematea eskertuko genuke, mezua bidaliz info@andoaingo.eus posta elektronikora edota 650 641 228 telefono zenbakira idatziz, edo deituz". Hitzaldiaren iraupena 2 ordu ingurukoa izango da.

Gainerako kirol jardueretako partaideei irekia
Basteroko hitzaldia txirrindulari gazte eta kirol zuzendariei ez ezik, gainontzeko kiroltako entrenatzaile eta zuzendariei ere zuzenduta dago. Elkarteko kideen ustez, "lagungarri izango zaiela koan gaude, horregatik guztiei luzatzen diegu gonbidapena".

Mendi Astea Andoainen

Igande honetan hasi eta datorren azaroaren 18ra bitarte, mendiari loturiko hitzorduak iragarri ditu Euskalduna mendigoizale taldeak. Gaztetxoei zuzendutako mendi zeharkaldiarekin abiatuko dira, zortzi egun beranduago ohiko babarrun jatearekin amaitzeko

Erredakzioa ANDOAIN
• Azaroak 11, igandea: 09:30 Mendi zeharkaldia.
• Azaroak 12, astelehena: 20:00 David Urtasun. Pirinioak.
• Azaroak 13, asteartea: 20:00 Arriskuen prebentzioa.
• Azaroak 14, asteazkena: 20:00 Euskaldunako bazkideen batzar orokorra.

• Azaroak 15, osteguna: 20:00 Joseba Iztueta. Khan Tengri eta Lenin Peak.
• Azaroak 16, ostirala: 20:00 Andoni Egaña. Txile.
• Azaroak 17, larunbata: 18:00 Mattin Zeberio. Zortzi Yukon.
• Azaroak 18, igandea: Babarrun jatea Gorritin.



David Urtasun andoaindarra.

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOIA, SASKI

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Hernani-Euskalduna	1-3
Dunboa Eguzki-Urnieta	5-0

SAILKAPENA

1	Euskalduna	21 puntu
14	Mariño	5 puntu
15	Urnieta	4 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

17:45	Euskalduna-Trintxerpe / Lar, 10
18:00	Urnieta-Gure Txokoa / Lar, 10

GORENGO MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Urnieta-Hernani	3-0
Euskalduna	Atsedena

SAILKAPENA

1	Urnieta	18 puntu
4	Hernani	10 puntu
5	Euskalduna	10 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

16:30	Mutriku-Urnieta / Ig, 11
15:30	Euskalduna-Intxurre / Lar, 10

ERREGIONAL MAILA

EMAITZA

Euskalduna-Astigarragako Mundarro	0-1
-----------------------------------	-----

SAILKAPENA

1	Danena	22 puntu
4	Euskalduna	13 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

15:45	Intxurre-Euskalduna / Lar, 10
-------	-------------------------------

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA

EMAITZA

Euskalduna-Mondragon	1-2
----------------------	-----

SAILKAPENA

1	Mondragon	21 puntu
4	Ilintxa	13 puntu
5	Euskalduna	13 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00	Urola-Euskalduna / Lar, 10
-------	----------------------------

JUBENIL MAILA

EMAITZA

Euskalduna-Urnieta	2-1
--------------------	-----

SAILKAPENA

1	Hernani	21 puntu
4	Urnieta	12 puntu
6	Euskalduna	9 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

13:15	Ostadar-Euskalduna / Ig, 11
16:30	Urnieta-Lazkao B / Lar, 10

ESKUBALOIA

SENIOR MAILA

EMAITZA

Haritza Eibar-Urnieta	31-32
-----------------------	-------

SAILKAPENA

1	Munttarpe	7 puntu
3	Urnieta	6 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

19:00	Urnieta-Legazpi / Lar, 10
-------	---------------------------

SENIOR MAILA, NESKAK

EMAITZA

Leizaran-Zeppelin	21-18
-------------------	-------

SAILKAPENA

1	Urbil Usurbil	6 puntu
2	Leizaran	6 puntu
3	Munttarpe	4 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

19:15	Urbil Usurbil-Leizaran / Lar, 10
-------	----------------------------------

SENIOR 2. MAILA

EMAITZA

Urnieta-Tolosa B	25-22
------------------	-------

ASTEBURUKO PARTIDA

19:30	BM Conet-Urnieta / Lar, 10
-------	----------------------------

EMAITZA, 2. MULTZOA

Leizaran-Orioko	34-20
-----------------	-------

SAILKAPENA

1	Urola Laztimendi	10 puntu
2	Leizaran	8 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00	Legazpi-Leizaran / Lar, 10
-------	----------------------------

JUBENIL MAILA

EMAITZA

Legazpi-Urnieta	29-26
-----------------	-------

ASTEBURUKO PARTIDA

17:15	Urnieta-Hettich / Lar, 10
-------	---------------------------

EMAITZA, 2. MULTZOA

Arrasate-Leizaran	28-33
-------------------	-------

SAILKAPENA

1	Leizaran	10 puntu
2	Ereintza	10 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

11:00	Leizaran-Donibane / Ig, 11
-------	----------------------------

JUBENIL MAILA, NESKAK

EMAITZA

Urretxu-Urnieta	11-18
-----------------	-------

ASTEBURUKO PARTIDA

15:45	Urnieta-Elgoibar / Lar, 10
-------	----------------------------

EMAITZA, 2. MULTZOA

Leizaran-Bera Bera Urdina	19-13
---------------------------	-------

SAILKAPENA

1	Usurbil	14 puntu
4	Leizaran	8 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

11:45	Eibar-Leizaran / Ig, 11
-------	-------------------------

SASKIBALOIA

JUNIOR MAILA

EMAITZA

BKL Aratz-Ganbara	43-18
-------------------	-------

ASTEBURUKO PARTIDA

09:00	Ganbara-Hernani Txiki / Lar, 10
-------	---------------------------------

KADETE MAILA

EMAITZA

Hernani-Ganbara	73-29
-----------------	-------

ASTEBURUKO PARTIDA

19:15	Ganbara-Askatuak / Lar, 10
-------	----------------------------

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Inge
Datorren azaroaren 16an Inge gure txikiak urtea beteko du. Muxu potoloak etxeko guztien partetik!!!



ANDOAIN
Hodei
Azaroaren 8an Hodeiek 8 urte betetzen ditu. Muxu handia etxeko partetik. Zorionak!



ANDOAIN
Aimar
Sei urte bete berri ditu, azaroaren 6an. Muxu handi-handia maitea! Aitaxo, amatxo eta Aiara.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 10 eta igandea 11
ANSA: Ondarreta, 8.
943 591 302. Andoain.

URNIETA

Larunbata 10 eta igandea 11
ETXEBARRIA: Andre kalea, 48.
943 551 793. Urnieta.

Gauez, bi herrietan: Castilla.
943 552 941. Hernani.

MERKATU TXIKIA

LANA

Hizkuntza eskolako irakasleak frantseseko klaseak ematen ditu: EOI diploma, mintzapraktika, enpresetarako klaseak. **693 692 823** eta **665 719 827**.

Gazte euskalduna arratsalde haurrak zaindu edo partikularrak emateko prest. **630 243 850**.

IRAGAR ZAITEZ

Dohainik da.
Idatzi: diseinua@aiurri.eus



BANATZAILEA BEHAR DUGU

Aiurri astekariak Urnietan eta Andoainen lanean aritzeko banatzailea behar du.

- Ezinbestekoa da ibilgailua izatea.
- Harremanetarako: 943 300 732 | idezkaritza@aiurri.eus

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 8

URNIETA Inmigrazinea

Etorkinek pairatzen dituzten egoerez eta topatzen dituzten arazoez hausnartzeko emankizuna. Lehen emanaldia: "Fatima".
19:00, Lekaio.

ANDOAIN Bertso afaria

Eli Pagola, Unai Mendizabal, Ion Beloki, Punttuka bertso eskola.
20:00, Gaztetxea.

LARUNBATA 10

ANDOAIN Kontzertua

Lendakaris muertos, Ezin eta.
22:30, Gaztetxea. 8 euro.

ASTEARTEA 13

URNIETA Hitzaldia

"Nola landu biktimen aitortza tokian-tokian", bake eta bizikidetzat jardunaldiak.
19:00, Lekaio.

ANDOAIN Sari banaketa

Martin Ugalde ipuin lehiaketako irabazleen sari banaketa ekitaldia.
18:30, Bastero.

OSTEGUNA 15

URNIETA Antzerkia

Roman eta Julieta antzezlanaren aurre estreinaldia.
19:30, Sarobe. 19:30. 5 euro.



ANDOAIN 'Mesa para Tr3s' dantza ikuskizuna

Urritasunen bat duten pertsonen arte eszenikoen bidez integratzeko aukera eskaintzen dien konpainia. Dibertsitatea ardatz hartuta, dantza garaikidean ibilbidea osatzen ari dira.
21:30, Basteroko auditorioa. Azaroak 16, ostirala. 10 euro.

OSTIRALA 16

URNIETA Ipuin kontaketa

Marisa Taberneroren eskutik, haur txikiei zuzenduriko saioa.
17:30, Ludoteka. Dohainik.

URNIETA Kontzertua

Nerabe eta Deus ez musika taldeak zuzenean.
22:00, Sarobe. Dohainik.

ANDOAIN Kontzertua

Mikro irekia "musika tresnak lagunartean sortu eta jolasteko".
22:30, Gaztetxea.

LARUNBATA 17

ANDOAIN Kontzertua

Northagirres, Wc Grooves, One Way.
22:30, Gaztetxea.

IGANDEA 18

ANDOAIN Haur ikuskizuna

Burbuila familia ikuskizuna.
17:00, Bastero. 4 euro.

URNIETA Haur antzerkia

Jon Braun antzezlan.
17:30, Sarobe. 3 euro.

ZINEMA

ANDOAIN

BASTERO

Small foot

Larunbata, 10:
17:00. Euskaraz.
Ig, 11: 17:00.


Ola de crímenes

Larunbata, 10:
19:30; 22:00.

Igandea, 11:
19:30.
Astelehena, 12:
19:30; 22:00.

El árbol de la sangre

Larunbata, 17:
19:30; 22:00.
Igandea, 18:
19:30.



Astelehena, 19:
19:30; 22:00.

SAROBE

Paddington 2

Igandea, 11:
17:00.

Oreina

Ostirala, 30:
22:00.

SINOPSIAK



Small foot

Zuz.: Karey Kirkpatrick, Jason Reisig. **Herr.:** Estatu Batuak (2018). **Iraupena:** 96 minutu. **Hizkuntza:** Euskara eta gaztelania.

Familian ikusteko film dibertigarria

Yeti gazte eta bizkor batek ustez existitzen ez zen zerbait aurkituko du: gizaki bat.

Adiskidetasunari, aurkikuntzen balioari eta pozari lotutako istorio berria da.


Paddington 2

Zuz.: Paul King. **Herr.:** Erresuma Batua (2017). **Aktoreak:** Hugh Grant, Hugh Bonneville, Sally Hawkins... **Iraupena:** 95 min.

Paddington hartz abenturazalea

Paddington hartz Brown familiarekin bizi da Windsor Gardens-en. Bizilagunen artean ezaguna egin da, eta bere alaitasuna eta marmelada nonahi zabaltzen ditu. 100 urte

beteko dituen izeba Lucy-rentzat liburu bat erosteko lan ezberdinetan hasiko da. Liburua lapurtuko dute, eta beren esku geratuko da lapurra agerian uztea.



Irabazlea txapelarekin. AIURRI

Oianumeko Sagardo txapelketa urriaren 26an

Joxeba Lizeaga URNIETA

DIVA Pentsuak eta Oianume sagardotegiak antolatuta, urriaren 26an egin zen Oianumeko VI. Sagardo Txapelketa. Ordu-rako, udazkenak negu itxura hartua bazuen ere, 50 lagunek hartu zuten parte afarian eta epaile lanetan. Beste txapelketetan egin moduan, honetan ere, afaltzera bertaratzen diren lagunak izaten baitira epaile lanetan aritzen direnak. Oianumera bertaratutakoek Astigarraga, Hernani, Urnieta, Aduna eta Abaltzisketako hamar sagardotegietako sagardoa dastatu eta epaitu zuten, arrain zein haragiz ondo hornitutako afarian zehar.

Afalostean eman zen ezagutzera txapelketaren emaitza. Astigarragako Etxeberrria sagardotegiak jantzi zuen txapela, 355 punturekin. Bigarren, herri berezko Lizeaga sailkatu zen, 340 punturekin. Hirugarren, Hernaniko Elorribi izan zen, 332 punturekin. Nabarmenezkoa da antolakuntza bikaina, afariari zein txapelketari dagokionean, puntuazioan ondoena ibili zena sarituz eta abar. Badu etorkizuna txapelketa honek!



Zozketa izan zen partaideen artean. AIURRI

AZKENA

Liburuak erosteko bitartekaritza zerbitzua

Urrietan liburudendarik ez egoteak eraman du Ainara De Miguel zerbitzu hori Etxeberrri plazako Ikasmin akademian jartzera. Sinesteak lanak ematen ditu, baina Urnietak hutsune handia du liburu salmentaren arloan



Ainara de Miguel, Ikasmin Akademian salgai ipini dituen liburuen alboan. AIURRI

Andoni Urbistondo URNIETA

Ez dago liburudenda bakar bat ere herrian. Egon zen, baina dagoeneko ez dago. Hausnartzeko moduko egoera ia 6.500 biztanle dituen herrian. Gabezia horren jakitun, eta bere akademiako ikasle eta haien gurasoei zerbitzu aberatsagoa eskaintze aldera, liburuak eskuratzeko zerbitzua eskaintzea erabaki du Ainara de Miguel-ek, Etxeberrri Plazako Ikasmin Akademian.

Honatz, zerbitzuaren funtsa: "Ikasteko grina daukan edozein etor daiteke Ikasmin akademiara, bertan liburu tartean aritzen gara. Digitalizazioaren aroan gaude, baina guretzat paperezko liburuak derrigorrezkoak dira. Orain gutxira arte liburuak non

erosi bagenuen, herrian bertan, baina ate hori itxi zen. Liburuz betetako apal asko ditut, baina jakina, ezin ikasleen eskaera ase guztiz. Amazon eta Elkar argitaletxeetako atarikoetan hasi nintzen liburuak erosten, gero ikasleei emateko, nik ezer kobratu gabe, eta pentsatu nuen halako zerbitzu gehigarri bat sortzea, Elkar argitaletxearekin hitz egin ostean". Helburua ez omen da liburu denda bat sortzea, "zerbitzu gehigarri bat eskaintzea baizik. Txoko berezi bat atondu dut, apal batekin, non hainbat liburu dauden, Elkar, Amazon edota La Casa del Libro argitaletxeen bitartez hornitua". Kudeaketaren truke salmentaren portzentaje minimo bat eskatzen

du, jakitun baita ezin duela "liburu denda baten pare jardun".

Zerbitzu berriari izen bat jartzeko eskatuta, honakoa bota du: "Liburudenda bat nahieran, halako zerbitzu". Arrazoi hauen-gatik: "Pentsa norbaitek opari bat egin nahi duela data jakin batean. Ba lan erraza du: akademiara etorri, eskatu eta listo. Nik astebeteko epean jasoko nuke, Elkar argitaletxearen salneurri berean. Liburuak iritsi eta iritsi ari dira azken asteetan, eta sei-zortzi urteko haurrentzat diren sorta bat saldu dut dagoeneko. 'Destroza mi diario' izena duen liburuko ale batzuk ere bai". Bide batez, liburu batekin zerikusi zuzena ez duten gailuak ere saldu ditu, "batez ere USB-ak. Elkar argitaletxeak halako promozio bat ba zegoela esan zidan, eta dozena pare bat saldu ditut dagoeneko".

Eta zer irabazten du Ainarak, zerbitzu horrekin? "Jendea etortzea akademiara. Dirurik ez. Eta irakurzaletasuna aberastea, ze irakurketak aberastasuna dakar berarekin. Bide hori ireki nahi izan diet herritarrei, ze orain ohikoa da entzutea. 'Liburu bat erosteko Hernanira joan beharra daukat', edota 'nik internet-en ez dut erosi nahi'. Bitarteko lan hori erraztu nahi dut".

Liburudendarik ez, 6.500 biztanleko herrian

Datu gordina da, baina errealtate krudela. Urrietan ez dago liburudendarik. Zergatik, baina? "Ez dakit liburudenda salmentarik ez dagoelako den, edota liburudendaren hutsunea herrian dagoen irakurzaletasun urriaren ondorioa den", dio Ainarak. Kezkagarria omen, egoera. "Jende batek esaten du, liburuak garestiak direla, baina ez nago ados, 10 euroren truke

Hainbat erreferentzia

Helduentzat: "Los besos en el pan" (Almudena Grandes), "Bajo la red" (Iris Murdoch), "El tatuador de Auschwitz" (Header Morris), "Jenis Joplin" (Uxue Alberdi).

Gazteentzat: "Algo tan sencillo como estar contigo" (Blue Jeans), "El increíble viaje de los besos voladores" Maria Inés Cuadrado, "Ezpainetakoa" (Ane Labaka).

Papertegia: Pendriveak, agendak, koadernoak, Goazen-en motxilak...

liburu asko eros daitezkeelako". Eta hausnarketa bitxia egiten du: "Ez daukat ezer tabernen kontra, baina deigarria da Urrietan hainbeste egotea, eta liburudenda bakar bat ere ez egotea. Are gehiago hain herri gaztea, edo hainbeste familia gazte etorri diren herria izanda". De Miguelek garbi du zerbitzu gehigarri bat eskaini nahi duela, ez duela jardun hori bere ogibide bilakatu nahi: "Ez dut nire ordutegia aldatuko. 15:00tik 19:00ra akademian izango naiz egunero, eta helbide elektroniko-ko edo telefonoz ere eskaerak egin ditzake edonork. Zerbitzuari zukua atera nahi dionak lan erraza dauka".

"Urrietan ere irakurtzen dugu" leloa erabili nahi nuke. Interakzioa handituko balitz pozik egongo nintzateke, salmentak gora edo behera. Neurri batean lortu dut, liburuarekin harreman zuzena ez duten produktuak salduz, adibidez USB-ak, ze sorta handia saldu dut, Elkar argitaletxearen bitartez. Ikasturte hasierako liburu erosketa masibo hori ezin da Urrietan egin, eta nik, aurrerantzean, kudea dezaket zerbitzu hori. Herritarren diru-zorroa betetzen ez bada, herritarrek ez du diru herrian gastatuko, ondokoan baizik, eta horrek, diruak herri-eritik ihes egiteaz gain, deserosotasuna eragiten du. Herritarren dirua herrian geratzeko mugimendua sortu behar da".